Zegama-Aizkorri

Zegama-Aizkorriren 25. aldiaren berezitasunarekin

Zegama-Aizkorri mendi maratoiaren 25. urteurreuna era berezian ospatuko dute asteburuan. 583 lasterkari aterako dira maratoian, Kilometro Bertikalean 250 eta Junior trailean 99.

– 1925etik –

iztueta

naturarekin orekan

Gure larreetan bazkatzen duten
behi osasuntsuekin egindako produktuak

1925etik 100 urte

Lazkaomendi 20210 Lazkao
m. 667 947 173

www.iztueta.eus

932

Zegama-Aizkorriko asteburuak elkartuko duen mendi lasterkari kopurua. Ostiral arratsaldean 250 kirolari lehiatuko dira Kilometro Bertikalean, eta horietatik 58 emakumezkoak izango dira (%22). Igandeko mendi maratoian 583 abiatuko dira, 92 emakumezkoak (%15), eta nesken proportziorik handiena Junior trailean izango da, 99 gaztetxotatik 30 (%30).



Zegama prest 25. ediziorako

● Inoiz baino mendi lasterkari gehiago elkartuko da aurten, urteurrenak eraginda.

● Trail-running munduaren topaleku izango da asteburuan.

Iñaki Gurrutxaga

Osinalde, Zubeldia, Dominguez, Otegi eta Arizkorreta, probaren aurkezpenean, Donostian. GFA

ZEGAMA— Zegamak Euskal Herrian egiten den kirol ekitaldi nagusietako bat hartuko du asteburuan, maiatzaren 15etik 17ra. 932 kirolari baino gehiago bilduko ditu aurten, inoizko gehien. Guztira 583 mendi lasterkari ariko dira lehian mendi maratoiaren 25. edizioan, 92 emakumezkoak. XII. Kilometro Bertikalean 250 kirolarik hartuko dute parte –58 emakumezkoak–, eta XV. Junior trailak 99 gaztetxo elkartuko ditu, horietatik 30 neskazkoak. Dena prest dute Zegaman urteurren borobilerako.

Apirilaren 30ean egin zuten Donostian Zegama-Aizkorri mendi maratoiaren 25. edizioarem aurkezpen ofiziala Azahara Dominguez Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako diputatuak, Iker Zubeldia Zegamako alkateak, Niko Osinalde Goiturreko zuzendariak eta Maialen Arizkorreta antolakuntzako kideak.

Emakumeen partaidetza

Arizkorretaren esanetan, 25 nazionalitatetako korrikalariak bilduko ditu aurtengo edizioak, baina parte-hartzaileen % 25 baino gehiago Gipuzkoakoak dira eta % 35 baino gehiago EAEkoak. Golden Trail Word Series ligako lehen proba puntuagarria izango da.

Zegamako asteburuak gero eta emakume atleta gehiago biltzen dituela ere nabarmendu du. Maratoian emakumeen parte-hartzea % 15 ingurukoa izango da, KB kategorian %22 dira eta junioirrean % 30era igotzen da. «Datu horiek erakusten digute emakumeen parte-hartzea eta gaitasuna, bai orainaldian, bai etorkizunean, bermatuta dagoela».

'Green Trail Concept'

Zegamako alkate Iker Zubeldiaren esanetan, Kilian Jornet fundazioak bultzatzen duen *Green Trail Concept* zigilua modu ikuskatu batean lortzeko lanean ari dira: «Trail running proben kudeaketa hobetzea da helburua, ingurumenaren, gizartearen, ekonomiaren eta etikaren ikuspegitik praktika jasangarriak txertatuz mendi-lasterketako proba horien antolaketan».

Azahara Dominguezek, bere aldetik, Zegamara joateko zerbitzu publikoa erabiltzeko deia egin die zaleei. «Autobusa da hitzordu handi honetan gozatzeko modurik erosoena». Ikus 3. orria.

Goierriren erakusleiho

Haren iritziz, «benetakotasunean oinarritutako eredu turistiko baten adierazle ezin hobea» da Zegama. Ideia hori berresteaz gain, Osinaldek Goierri ezagutzeko deia egin die bisitariei.●

OHARRAK

Igandean Zegama-Aizkorri mendi maratoia ikusteko hainbat datu eta ordutegi baliagarri.

Informazio praktikoa

07:00-08:30. Dortsal banaketa elizako arkupeetan.
07:30. Zegamako plazatik autobusez Apeaderoraino igo daiteke, eta handik Sancti Spiritura Amezti elkartekoekin.
09:00. Maratoiaren irteera.
10:45-11:00. Lehen korrikalariak Sancti Spiritutik igaroko dira. 2,5 kilometrotan 500 metro igoko dituzte Aizkorriko kontrolgunera iritsi arte, maratoiaren alderik gogorrenari ekinez.
11:15-11:30. Lehen korrikalariak Aizkorrira iristeko ordua.
12:30. Ordu horretarako espero da lehen korrikalaria helmugan.
14:00. Sari banaketa.
17:00. Helmugako kontrolak itxiko dira.

Zegama-Aizkorri mendi maratoiko lehen lasterkariak kontrol guneetatik pasako diren orduak.

Lasterketa burua non

09:45. Beunda (10. Km)
10:10. Atabarreta (13,5. km)
10:35. Aratz (16,1. km)
10:48. S. Spiritu (19,6. Km)
11:14. Aketegi (23,2. Km)
11:22. Oltze (26,6. Km)
11:40. Urbia (28,5. Km)
11:52. Itzubiaga (32,3. Km)
12:04. Moano (34,2. Km)
12:36. Oazurtza (37,8. Km)

Autobus zerbitzu bereziak

● Larunbatean eta igandean zerbitzu berezia izango da.

● Zaldibia eta Zegama arteko linean, autobus gehiago jarri dituzte.

Autobus zerbitzu bereziak jarri dituzte larunbatean eta igandean. A.V.

Loinaz Agirre

ZEGAMA— Larunbatean eta igandean autobus zerbitzu berezia antolatu dute Zegamara edo maratoia ikustera mendira joan nahi dutenentzat. Batetik, Zegamara joateko, larunbatean, 09:00etatik 20:00etara, bi autobus ibiliko dira Zegama-Segura-Zegama artean. Kotxea aparka arazi dieten lekuan jasoko dute jendea. Igandean ere, 06:00etatik 19:00etara, bost autobus ibiliko dira ibilbide horretan.

Mendira joan nahi dutenek ere izango dute autobusez hurbiltzeko aukera, 06:00etatik aurrera etengabe ibiliko baitira autobusak, Zegamatik Apeaderora joateko (handik Sancti Spiritura oinez) eta Suazerretako aparkalekuetatik (Otsaurtera).

Bestalde, Lurraldebusen ohiko Zaldibia, Ordizia, Beasain, Olaberria, Idiazabal, Segura eta Zegamaren arteko ohiko autobus zerbitzuaren (G001 linea) linea ere indartuko dute. Larunbateko autobus bereziak, Zaldibiatik Zegamara 10:00etan, 11:00etan, 15:00etan, 16:00etan eta 17:00etan, ondorengo geldialdiekin: Ordiziako Gudarien Etorbidean eta Garagartzan, Beasaingo Esteban Lasa, Oriamendi 32 (10:18, 11:18, 15:18, 16:18 eta 17:18) eta Antzizar Kiroldegian, Olaberrian Ihurren, Idiazabalen (10:30, 11:30, 15:30, 16:30 eta 17:30), Seguran eta Zegaman. Itzulerako zerbitzu bereziak 20:00etan, 21:00etan eta 22:00etan aterako dira Zegamatik.

Igandean zerbitzu bereziak honako orduetan abiatuko dira Zaldibiatik: 06:30ean, 07:00etan eta 08:00etan. Itzultzeko autobusak: 15:55ean, 16:55ean, 18:00etan eta 19:00etan.●

TRAFIKO OHARRAK

Astean zehar

Maiatzaren 11tik 14era: Astelehenetik ostegunera, Partzoneriko sarbideak (Otsaurtetik eta Urdalur aldetik) itxita egongo dira iluntzeko 19:00etatik goizeko 07:00ak arte.

Asteburu osoan zehar

Maiatzaren 15tik 17era: Zegaman kotxeak garajean sartzea eskatzen da.
Otsaurtetik Aldaolara joateko bidea itxita egongo da ibilgailuentzat maiatzaren 13ko iluntzeko 19:00etatik (ostirala) maiatzaren 15eko goizeko 06:00ak arte (igandea).
Urdalurreko pasabidea Beunde, Aldaola eta Sancti Spiritutik datozen ibilgailuentzat bakarrik izango da irteera-bidea.

Ostirala (maiatzak 15)

Apeaderoko bidea itxita egongo da eguerdiko 12:00etatik aurrera, baimenduentzat izan ezik.
Eguerdiko **14:00etatik aurrera** eta Kilometro Bertikaleko proba bukatu arte, **lineako autobusak farmazia aurrean buelta** hartuko du, geltokia bertan izanaz.

Larunbata (maiatzak 16)

Lineako autobusak egun osoan zehar farmazia aurrean hartuko du buelta, beraz, geltokia bertan egongo da.

Igandea (maiatzak 17)

Ugarte-Zelai kaleak norabide bakarra izango du, Otsaurteranzko norabidea.
Zegama herri barruan dauden ibilgailuek Otsaurtera joateko norabidean, errepidea irekita izango dute 10:30 arte. Ordu horretatik aurrera itxita egongo da. Aldiz, Zegamara kanpotik datozenek ezin izango dute Zegama zeharkatu, GI-3261 eprrepidea itxita egongo baita egun osoan, Zerain eta Zegama artean. Hauek, San Adrian-Sancti Spiritun lasterketa ikusi nahi badute, Etzegarate/Otsaurtetik joan beharko dute.
Otsaurte gainean, Otsaurte-Zegama norabidean errepidea itxita egongo da goizeko 06:00etatik 14:00ak arte, baimenduentzat izan ezik. Honela, trafikoa N-1etik (Idiazabal-Segura-Zegama) bideratuko da.
Lineako autobusa hartu nahi dutenek, Intxaustiko industrialdera joan beharko dute, autobusak ezingo baitu herrian sartu. Zegamatik Intxaustira joateko edo Intxaustitik herrira etortzeko, jarri diren autobus txikiak erabili beharko dira.
Autobus txikien zerbitzua goizeko 06:00etatik 19:00ak bitartean emango da etenik gabe. Autobusa hartzeko geltoki bakarra farmazi aurrean egongo da.
Goizeko **06:00etan Apeaderora joateko autobus zerbitzua** (Andraitz kaletik abiatuta) eskainiko da.

Autokarabanak

Ezingo da autokarabanaz Partzuergora sartu.
Zegaman, Olaberria/Ugarte-Zelai auzoan eta Anduetza Interpretazio Zentroan. Plaza mugatuak.
Guardi industriagunean, Segura eta Idiazabalen izango da lekurik zabalena.



Zegama osoa Kilian Jorneti eta Tove Alexanderssoni begira

● Kataluniarra hamabigarren txapela irabazten saiatuko da.

● Suediarra lehen aldiz ariko da Zegama, eta hautagai nagusia da.

Iñaki Gurrutxaga

ZEGAMA— Igande goizean jokatuko da 25. Zegama-Aizkorri mendi maratoia, Golden Trail Serieetako lehen proba puntuagarria. Aurten ere kirolari ugarik eman dute mendi maratoirik epikoenean parte hartzeko izena: 11.529 eskaera –iaz baino zerbait gutxixeago– erregistratu dira zozketan sartzen diren 225 dortsaletarako. Azkenean, 583 mendi lasterkari izango dira irteeran.

Zegamak kirolari ezagun asko hartuko ditu aurten ere. Gizonezkoen artean, Elhousine Elazzaoui iazko irabazlea eta Daniel Pattis, Luca Del Pero eta Lorenzo Beltrami –iazko hirugarren, laugarren eta bosgarrena– nabarmentzen dira. 25. urteurrena dela eta, txapel preziatuaren jabe guztiak gonbidatu dituzte: Kilian Jornet, Manuel Merillas, Remi Bonnet, Rob Jebb eta Mario Poletti Zegaman izango dira, besteak beste.

Lasterketak bestelakorik erakutsi ezean, Jornet da irabazteko faborito nagusia. 11 aldiz irabazia eta probaren errekorduna –2022an, 3:36:40–, Zegama-Aizkorriren 25. edizioko koska gorenera igotzea gustatuko litzaiokeela ez dago ukatzerik.

Alexandersson lehen aldiz

Emakumezkoetan, ez da faltako iazko garailea –Sara Alonso donostiarra– eta TOP 5 osoa Judith Wyder, Malen Osa, Rosa Maria Lara eta Theres Leboeufekin. Aurten lehen aldiz egongo da irteeran Tove Alexandersson, aurtengo Salomonen fitxaketa, iaz Canfranc 2025ean munduko irabazlea –Sara Alonso bigarrenari ordu erdiko abantaila atera zion–. Suediarrak emakumezkoen errekorra hobetu dezakeela uste dute antolatzaileek. Munduko 37 urrezko domina lortu da diziplina ezberdinetan –mendiko eskia, orientazio eskia...–. Beste edizio batzuetako irabazleak ere Zegaman izango dira, Ida Nilsson eta Angela Mudge, besteak beste.

Euskaldunak, etxean lehian

Euskal lasterkarien artean, Paul Ormaetxea, Ibai Larrea, Ander Iñarra, Aitor Ajuria eta Aitor Zunzunegi legorretarra nabarmentzen dira gizonezkoetan, eta emakumezkoetan Sara Alonso, Malen Osa, Oihana Zubillaga eta Ainara Uribarri, eta baita Euskal Selekzioko kide Lide Urrestarazu ordiziarra, Ainara Alkuaz eta Ainhoa Garikano ere. ●

FITXA TEKNIKOA

Eguna: 2026ko maiatzaren 17a.
Irteera eta helmuga: Zegamako plaza. Irteera ordua: 09:00.
Distantzia: 42,195 km.
Pasagune kontrolak: 13.
Jan-edari postuak: 14.
Tarteko helmugak: Aizkorri (22,58 km).
Gorabehera metatua: 5.472 metro.
Gehieneko altuera: 1.551 metro (Aketegi).
Gutxieneko altuera: 296 metro (Zegama).
Eremu teknikoa ehunekotan: %50 gutxi gora behera.
Gehieneko denbora: 8 ordu.
Zailtasuna: Oso handia.

AZKEN HAMABI EDIZIOAK

2012
Kilian Jornet 3:56:04
Oihana Kortazar 4:52:50

2013
Kilian Jornet 3:54:38
Emilie Fosberg 4:48:12

2014
Kilian Jornet 3:48:14
Stevie Kremer 4:46:43

2015
Tadei Pvik 3:51:11
Azara Garcia 4:41:23

2016
Kilian Jornet 3:50:03
Yngvild Karpersen 4:50:58

2017
Stian AngermundVik 3:45:08
Maite Maiora 4:34:27

2018
Remi Bonnet 3:53:56
Ida Nilsson 4:38:38

2019
Kilian Jornet 3:52:47
Eli Anne Dvergsdal 4:36:06

2022
Kilian Jornet 3:36:40
Nienke Brinkman 4:16:43

2023
Manuel Merillas 3:42:01
Daniela Oemus 4:31:54

2024
Kilian Jornet 3.38.07
Sylvia Norrdskar 4.29.12

2025
Elhousine Elazzaoui 3:43:28
Sara Alonso 4:27:25

Errekorrak
2022 Kilian Jornet 3:36:40
2022 Nienke Brinkman 4:16:43

Lehen aldiak eta itzulerak

● Parte hartuko duten goierritarrak 44 dira, 4 emakume eta 40 gizon.

● Karmele Ormazabalek 2017an egin zuen azkeneko aldiz.

● Pello Olaberriak eta Aitor Garmendiak lehenengo aldia dute.

● Lara Estebanek iaz bezala gozatu eta denbora hobetu nahi du.

Laida Goiburu

ZEGAMA— Mendi maratoiaren 25. edizioan 583 mendi lasterkari lehiatuko dira igandean Zegamatik Aizkorrira bitarteko joan etorrian. Horietatik 92 emakumezkoak dira. Aurten parte hartuko duten goierritarrak 44 dira: 4 emakumezko eta 40 gizonezko. Karmele Ormazabal zegamarra, Pello Olaberria mutiloarra, Aitor Garmendia itsasondoarra eta Lara Estebanez legazpiarra dira horietako lau.

Lara Estebanez legazpiarra, Aratzen, iaz. HITZA

Karmele Ormazabal
Korrikalaria (Zegama)

«Bosgarrena egin nahi nuen, eta aurten saiatu egingo naiz.»

Bosgarren aldiz egingo du maratoia Karmele Ormazabalek (Zegama, 1972) maratoia. «Aurreneko lauak duela urte asko egin nituen, denak jarraian; 2017an egin nuen azkena. Bosgarrena egin nahi nuen, eta aurten saiatu egingo naiz. Oso berezia izango da niretzat, eta nire alabarentzat».

Helburua, «bukatzea eta minik ez hartzea» du. Kezkarik handienak, denbora mugek sortzen die. «lehenengoari batez ere, Sancti Spirituraino kortea potentea izaten da». Bestalde, «kresterioak ere bere zailtasuna du. Eta eguraldiak ere bai, desberdina izaten baita karrera».

Inoiz baino bereziagoa izango da aurtengo Zegama-Aizkorri. «Karrera berezia da, zegamar batentzat, eta nik uste dut mundu guztiarentzako. Niretzat behintzat beti izan da oso berezia».

Pello Olaberria
Korrikalaria (Mutiloa)

«Muskularki ea nola erantzuten dudan»

Pello Olaberriak (Mutiloa, 1994) lehenengo aldiz izango da igandean Zegama-Aizkorri maratoiaren irteeran. Bora txirrindulari taldeko zuzendarietako bat da eta lasterketarik ez duten uneak aprobetxatzen ditu entrenamenduetarako, nahiz eta azkenaldian izan den tokietan aldapa handirik ez duen izan inguruan.

«Etxeko karrera da eta ahal dudan guztietan ikustera joan izan naiz. Sancti Spiritun egoten den giroa behin bada ere, bizitzeko gogoa ematen du». Helburua, 5 ordutik jaistea du, «baina ez dakit nola iritsiko naizen. Maiatzaren 3ra arte kanpoan ibili naiz. Beraz, disfrutatzera aterako naiz».

Hori bai, «konpetitiboa naiz eta karrera guztietan saiatzen naiz daukadan onena ematen».

Mendiko lehen maratoia izango da mutiloarrarentzat: «Badakit forma badaukala, edo badaukadala gaitasuna maratoia bukatzeko. Baina beldur gehiena, muskularki ea nola erantzuten dudan da. Ziklismotik nator, baina mendian korrikan muskulatura erabat diferente ibiltzen da. Saiatu naiz gimnasioko lana egiten, baina ikusiko dugu. Ea gozatzea lortzen dudan».

Aitor Garmendia
Korrikalaria (Itsasondo)

«Inoiz egingo dudan karrerarik luzeena izango da denboraz.»

Basamortuko Saharako maratoia irabazi zuen otsailean, baina mendian egingo duen lehenengo maratoia izango da Aitor Garmendiarentzat (Itsasondo, 2000). «Aspalditik neukan egiteko gogoa. Aurten aukera eduki dut, eta erdi prestatuta nagoenez, pixka bat gehiago entrenatu eta gozatzera ateratzeko asmoa daukat».

Helburu nagusia, «osorik ailegatzea, erori gabe, helmugara lehertu gabea iristea» du Garmendiak. «Ahalik eta azkarrena egingo dut, karrera guztietara joaten naizenean, ahalik eta hoberena egitera joaten naiz, eta hau ere hala egingo dut. Inoiz egingo dudan karrerarik luzeena izango da denboraz. Beraz, bidea disfrutatzea, eta bukaerara erdi osorik edo erdi disfrutatzeko moduan iristea da helburua».

Beldurrik handiena «kresterioko harrikariari» dio, «nahiko traketsa naizelako harri artean ibiltzen. Txorkatillen bat bihurritzeak ematen dit beldurra». Eta denborak ere kezka sortzen dio. «42 errepidean eta basamortuan egin ditut, baina mendian hainbeste ordu sekula ez. Gutxienez bost ordutik gora joango da, eta inoiz ez dut korrika egin bost ordutik gora. Pixkanaka ari naiz prestatzen, baina ez naiz distantzia horretara iritsiko. Horrek zalantza sortzen du».

Lara Estebanez
Korrikalaria (Legazpi)

«Nire helburua bertan parte hartu eta gozatuta amaitzea da»

Iaz, lehenengo esperientzia bizi izan zuen Zegama-Aizkorrin Lara Estebanezek (Legazpi, 1994). «Jende guztiak esaten zidan lehenengo urtea zela eta disfrutatzeko. Eta horrela izan zen, gozatua hartu nuen. Eguraldi ona egin zuen, jende asko zegoen eta oso giro ona izan zen. Eta egia esateko, hasieratik bukaerara arte gozatu nuen. Oso esperientzia ona izan zen».

Beraz, aurten ere, «iaz bezala disfrutatuko banu, primeran. Baina egia da, behin egindakoan, aurreko denbora –05.23:20– hobetuko banu, perfektua litzatekeela». Eguraldiak eragin dezake: «Ez da berdina ona egitea edo oso txarra, euria, lainoa... egotea. Karrera asko aldatzen du eguraldiak, batez ere kresterioan, bustita egonez gero, ez delako era berdinean korrika egiten. Niretzat gainera, agian zati teknikoa dela konplikatuena, baina azkarrago edo polikiago jaitsiko gara». ●

«Disfrutatzea eta 2024ko antzeko marka egitea lortu nahi nuke»

LIDE URRESTARAZU AGIRRE
Mendi korrikalaria

2024an Zegama-Aizkorrin debuta egin eta hatz puntekin podiuma ukitzear egon zen Lide Urrestarazu (Ordizia, 1999). Iaz ezin izan zuen parte hartu, baina aurten ezin izan dio hitzorduari uko egin. Aizkorriko magalera itzultzeko «gogotsu» dago.

Lide Urrestarazu, 2024ko Zegama-Aizkorri maratoian. HITZA

Izaro Villarreal

ORDIZIA— Zer esan nahi du lasterketa honek zuretzat?
Goierrin bertan jokatzen den nazioarteko lasterketa izanik, aukera berezia da niretzat, mundu mailako korrikalariekin lehiatzeko parada ematen didalako. Gainera, goierritarra naizenez, txikitatik bizi izan dudan proba da. Nire osabak –Koldo Urrestarazu Garmendiak– edizio guztietan parte hartu izan du, eta beti joan izan gara ikustera. Lasterketa kuttuna da niretzat.

Nola aurkitzen zara Zegamarako?
Gogotsu nago. Denboraldi honetan gutxi lehiatu naiz, eta indartsu sentitzen naiz berriro gorputza estutzeko. Berakoa izan da nire lehen lasterketa aurten –irabazi egin zuen–; gero Frantzian izan nintzen, eta orain Zegama etorriko da.

Aizkorrin entrenatzen ari al zara?
Aralarren, Aizkorrin... Egia da azkenaldian Aizkorrira pixka bat gehiago joan naizela, baina normalean entrenamenduak tokiz aldatzea gustatzen zait. Momentuko gogoek ere dezente baldintzatzen dute entrenatzeko hautatzen dudan tokia.

Bosgarren postua lortu zenuen orain bi urte.
Benetan berezia izan zen. Mundu mailako hainbeste korrikalari profesionalen artean bosgarren postua lortzea ez nuen batere espero. Etxean aritzeak ere asko lagundu zuen: lagunak eta familia alboan nituen, eta giroa paregabea izan zen. Ilusio berezia egin zidan podiuma horren gertu ikusteak, eta gozatu ederra hartu nuen.

Zeintzuk dira aurtengo zure helburuak?
Urte hartan bezala disfrutatzea lortuko banu, ederki gustura bueltatuko nintzateke Zegamatik Ordiziara. Denbora aldetik ere, antzeko marken artean egotea gustatuko litzaidake. –4:37:20 izan zen 2024an denbora–.

> «Ibilbidea bereziki ezagutzeak laguntzen du, baina neurri batean»
>
> **LIDE URRESTARAZU**
> Mendi korrikalaria

Maila handiko korrikalariak izango dira aurten ere. Nola ikusten duzu podiuma?
Zegaman mundu mailako onenak elkartzen dira, eta horrek oso zaila egiten du podiuma lortzea. Oraingoz, nire burua ez dut hor ikusten. Iazko lasterketa ikusita, Sara Alonso aurretik ibiliko dela imajinatzen dut aurtengoan ere. Tove Alexanderson ere badator espektakulu ederra eskaintzeko aukera guztiak dituena, eta bera ere aurreneko postu inguru horretan ibiliko dela aurreikusten dut.

Aurten ere Koldo osaba izango duzu alboan. Lagungarria al da hori?
Bai, oso berezia da. Txikitatik bera animatzera joan ondoren, orain lasterketa bera biok batera partekatzeko aukera izatea polita da. Gainera, berak edizio guztietan parte hartu du, eta hori ez da edonork esateko modukoa; gutxi geratzen dira horrelakoak.

Etxekoen, lagunen eta ingurukoen babesa izango duzue igandean. Ibilbidea ezagutzeak laguntzen al du?
Ibilbidea ezagutzeak eta bertan entrenatzeko aukera izateak laguntzen duela uste dut, baina neurri batean. Gehiegi pentsatzen baduzu ibilbideaz edo lasterketaz, nekatu ere egin zaitezke. Beraz, onura izango du, baina bere mugarekin.

Zeintzuk dira ibilbidearen zatirik gustukoena eta gogorrena?
Gehien gustatzen zaidan zatia Aratzera igo aurreko basoa da; oso paraje ederra da, bai korrika egiteko, bai entrenatzeko. Gogorrena, berriz, Urbiako buelta dela esango nuke: ordurako kilometro asko pilatuta izaten ditugu, eta zatia azkarra denez, asko sufritzen da.

Zegamaren ondoren, zer?
Ziurrenik uda zatia lasaiago hartuko dut. Irailetik aurrera helduko diot berriro denboraldiaren bigarren zatiari, baina oraindik ez daukat zehaztuta zer egingo dudan. Irekita nago aukera guztietara. ●

2002ko San Fermin egunez hasi zen dena

● Bilakaera handia izan du Zegama-Aizkorrik hasieratik gaur egunera.

● Nazioarteko kirol markak babesle izateak eragin du zabalkundea.

Zegama-Aizkorri mendi maratoiaren lehen edizioaren irteera. HITZA

Iñaki Gurrutxaga

ZEGAMA— Zegamaren izena ezaguna egin eta hura Aizkorrirekin lotzeko ideia mendi maratoi bihurtu zen 2002ko uztailaren 7an. Harrezkero izan duen bilakaera ez sinistekoa izan da, ez kopuruz ezta kualitatiboki ere. Ondoko lerroek garai bakoitzeko mugarrien laburpena jasotzen dute, bost urteka banatuta.

JAIO ORDUKO HAZI

Juan Martin Tolosa eta Rosa Lasagabaster izan ziren lehen irabazleak, **2002an.** 219 korrikalari irten ziren. Bigarren edizioa, **2003ko** San Fermin bezperan, eta txapela Fernando Garciak eta Esther Hernandezen jantzi zuten. 291 mendizale helmugan. **2004.** urtean munduak Zegama aurkitu zuen. Buff Sky-Runner World Series-erako puntuagarria, 330 korrikalarik hartu zuten parte. Mario Poletti eta Anna Serra izan ziren nazioarteko aro berri honetako lehen errege-erreginak. **2005ean**, Rob Jebbek (03:54:18) lau orduko langa jaitsi zuen lehen aldiz, eta Corinne Favrek bere legea ezarri zuen. *Zegamako loteria* hasi zen **2006an,** lehen aldiz dortsalen zozketa. Ricardo Mejia eta Angela Mudge irabazle.

BOSTETIK LAU JORNETEK

2007an Kilian Jornetek bere lehen txapela jantzi zuen Zegaman, 19 urte eskasekin. Emakumezkoetan, Corinne Favrek irabazle bigarrenez. Buff Sky-Runner World Series-en final handia izan zen –420 partaide–. **2008an** txapeldun berberak izan zituen. Skyrunning-eko Europako Txapelketa izan zen eta 392 mendizalek osatu zuten proba. **2009an** Ricky Lightfoot eta Emanuela Brizio (04:38:19) izan ziren garaile –417 partaide–. Italiarraren markak 2017ra arte iraun zuen. **2010ean,** gailurretan elurra zela, Jornetek hirugarren txapela jantzi zuen, eta Briziok bigarrena. **2011n,** lehen aldiz proba telebistaz. Jornet laugarrenez nagusi, eta Oihana Kortazarren aurrenekoa. 415 partaide 10.ean.

BI LASTERKETA BERRI

2012an bide berri bat ekin zion Zegamak, lehen Junior Traila antolatuz. Kilian Jornet –bosgarren txapela– eta Oihana Kortazar –bigarrena– izan ziren berriz ere jaun eta jabe, 483 korrikalariz inguratuta. **2013koak** inoizko amaierarik estuena izan zuen. Jornetek 12 segundo eskas atera zizkion helmugan eta Luis Alberto Hernandori. Nesketan, Emelie Forsberg garaile. 550 partaide. **2014an** Jornetek zazpigarren aldiz irabazi eta gizonezkoen errekorra birrindu zuen (03:48:38). Stevie Kremer estatubatuarra gailendu zen nesketan. 463 partaide. **2015ean**, Kilometro Bertikala jokatu zen lehen aldiz. Maratoia Europako Txapelketa izan zen berriz ere. Tadei Pivk eta Azara Garcia txapeldun. **2016an**, euria, hotza eta lokatza izan ziren 520 korrikalarien bidelagun. Kilian Jorneten zortzigarrena eta Yngvild Kaspersenen lehena.

MENDITIK ETXERAINO

2017a errekorren urtea izan zen. Bi marka nagusiak Stian Angermundek (03:45:08) eta Maite Maiorak (04:34:27) ondu zituzten. 419 *finisher*. Aro berri bati ekin zion Zegamak **2018an,** Golden Trail World Series-en lehen edizioaren zirkuituan sartuta. Remi Bonnet eta Ida Nilsson izan ziren indartsuenak. **2019an,** Kilian Jornet bederatzigarrena. Eguneko ezustekoa Eli Anne Dvergsdal norvegiarrak eman zuen. **2020an,** pandemia garaian, Zegama-Aizkorri birtuala bihurtu zen: Mundu osoko 9.870 lagunek osatu zuten ibilbidea haien etxeetan. **2021ean,** uztailetik irailera, 572 korrikalarik osatu zuten maratoia bakarka Open Trail Races aplikazioaren bidez.

ITZULERA ERREKORREKIN

Gaur egun indarrean dauden errekorrak jarri zituzten **2022an** Kilian Jornetek (03:36:40) –hamargarren txapela– eta Nienke Brinkmanek (04:16:43). Euriaren eta hotzaren eraginez, gailurreria saihestea erabaki zuten antolatzaileek **2023an.** Irabazleak, Manuel Merillas eta Daniela Oemus. Partaideak, 527. Kilian Jornet hamaikagarren aldiz irabazle Zegaman **2024an,** erakustaldi gogoangarri batekin. Emakumezkoetan, Sylvia Nordskar norvegiarra izan zen azkarrena. Eta orain arteko azkenekoan, **2025ean,** Elhousine Elazzaoui irabazle mutiletan, eta Sara Alonso donostiarra emakumezkoetan. Eta **2026an?** Hasteko behintzat, mendi maratoiaren 25. urteurreneko ekitaldia egingo dute larunbatean (12:30), eta Anduetza parketxean 25 urteko historia laburbiltzen duen erakusketa bat jarriko dute ikusgai.●

583 n korrik irteer

Korrikalaria Sancti Spiritu

DORTSALAK

1.	**Sara Alonso Martinez**	**Donostia (EH)**
2.	Judith Wyder	Kehrsatz (SUI)
3.	**Malen Osa Ansa**	**Oñati (EH)**
4.	Theres Leboeuf	Aigle (SUI)
5.	Ida Amelie Robsahm	Oslo (NOR)
6.	Marta Martinez Abellan	Oviedo (ESP)
7.	Tove Alexandersson	Borlänge (SUE)
8.	Anna Tarasova	Girona (HK)
9.	Fabiola Conti	Aosta (IT)
10.	Nuria Gil Clapera	Reus (HK)
11.	Maria Fuentes Olcina	Benidorm (HK)
12.	Lucille Germain	Bozel (FR)
13.	Madalina Amariei	Oradea (ER)
14.	Valentine Jepkoech Rutto	Nairobi (AFR)
15.	Julia Font Gomez	Fondeguilla (HK)
16.	Barbora Bukovjan	Otrokovice (TXE)
17.	Julie Lelong	Vaulnaveys (FR)
18.	Martina Valmassoi	Pieve di Cadore (IT)
19.	Elise Poncet	40 chemin du Pavis (FR)
20.	Takako Takamura	Shinjuku (JP)
21.	Elhousine Elazzaoui	Bedano (DUI)
22.	Daniel Pattis	Tires (IT)
23.	Luca del Pero	Ballabio (IT)
24.	Lorenzo Beltrami	Mandello del Lario (IT)
25.	Antonio Martinez Perez	Onil (HK)
26.	Nicolas Molina Augustin	Durcal (ESP)
27.	Remi Bonnet	Charmey (SUI)
28.	Kilian Jornet Burgada	Sabadell (HK)
29.	Manuel Merillas Moledo	La Cueta (ESP)
30.	Benjamin Roubiol	Saint-Gervais-les-bains (FR)
31.	Alain Santamaria Blanco	Valgañon (ESP)
32.	Robert Pkemoi Matayango	Iten (AFR)
33.	Davide Magnini	Vermiglio (IT)
34.	Louison Coiffet	Vallouise-Pelvoux (FR)
35.	Sylvain Cachard	Le Sappey-en-Chartreuse (FR)
36.	Roberto Delorenzi	Sigirino (SUI)
37.	Gianluca Ghiano	Pinerolo (IT)
38.	Taylor Stack	Crested Butte (AEB)
39.	Shen Jiasheng	Annecy (FR)
40.	Alex Oberbacher	Ortisei (IT)
41.	Estel Roig Fortin	Terrassa (HK)
42.	Martina Cumerlato	Ortisei (IT)
43.	**Lide Urrestarazu Agirre**	**Ordizia (EH)**
44.	Greta Garcia Moran	Biedes (ESP)
45.	Natalia Gonzalez Barrachina	Montgat (HK)
46.	Sydney Petersen	Crested Butte (AEB)
47.	Laia Montoya Garcia	Manresa (HK)
48.	Celia Balcells Serra	Santa Coloma de Queralt (HK)
49.	**Ainara Alcuaz Rodriguez**	**Burlata (EH)**
50.	**Oihana Zubillaga Blanco**	**Anoeta (EH)**
51.	**Garazi Abasolo Mujika**	**Aretxabaleta (EH)**
52.	**June Agirrezabalaga**	**Orio (EH)**
53.	**Naia Aleson**	**Azkoitia (EH)**
54.	Sonia Amat Valero	Oviedo (ESP)
55.	**Nerea Amilibia Arruti**	**Zarautz (EH)**
56.	Ester Amills Beltran	Bartzelona (HK)
57.	**Adriana Andino Echevarria**	**Sondika (EH)**
58.	**Ireder Angulo Elexpe**	**Durango (EH)**
59.	**Eneritz Aramendi Garmendia**	**Azpeitia (EH)**
60.	Guada Diaz	Tamaimo (ESP)
61.	**Garazi Artola Balda**	**Zumaia (EH)**
62.	**Carmen Asenjo Cuellar**	**Gasteiz (EH)**
63.	Lucy Brooks	Tarragona (HK)
64.	Yasmina Castro Chacon	Santa Lucia (ESP)
65.	Marta Cester Farre	Vielha (HK)
66.	**Maud Combarieu**	**Urruña (EH)**
67.	Yasmina Conde Diez	El Catllar (HK)
68.	Aïda Cusac Carreras	Baga (HK)
69.	**Arantxi de la Fuente**	**Astigarraga (EH)**
70.	Silvia Del Barrio Fernandez	Alcorcon (ESP)
71.	**Leire Elola Izagirre**	**Tolosa (EH)**
72.	**Ane Elzaurdia Mentaberri**	**Bera (EH)**
73.	**Lara Estebanez Vivar**	**Legazpi (EH)**
74.	**Larraitz Etxebeste Lizaso**	**Oiartzun (EH)**
75.	**Mihaela Filip**	**Zegama (EH)**
76.	**Zuriñe Frutos Gutierrez**	**Artziniega (EH)**
77.	**Ainhoa Garikano**	**Tolosa (EH)**
78.	Lauren Gregory	Louisville (AEB)
79.	**Sonia Gutierrez**	**Güeñes (EH)**
80.	Ruth Ilias	Bartzelona (HK)
81.	**Ainhoa Intxausti**	**Segura (EH)**
82.	**Maider Jauregi**	**Larrabetzu (EH)**
83.	**Libe Lafuente Amunarriz**	**Astigarraga (EH)**
84.	**Irati Larrañaga Matxain**	**Usurbil (EH)**
85.	Paloma Lobera Grau	Sant Feliu de Guixols (HK)
86.	**Sonia Lopez Bañuelos**	**Ermua (EH)**
87.	**Montse Lopez-Vailo**	**Peralta (EH)**
88.	**Maite Martinez Agirre**	**Gasteiz (EH)**
89.	**Ane Mendizabal Etxabe**	**Zarautz (EH)**
90.	Elena Mihai Stoica	La Llosa (HK)
91.	Angela Mudge	Kingussie (EB)
92.	**Nora Narbaiza Albisua**	**Zaldibar (EH)**
93.	**Karmele Ormazabal**	**Zegama (EH)**
94.	**Itziar Oteiza Resano**	**Arellano (EH)**
95.	**Adirane Peñagarikano**	**Urretxu (EH)**
96.	**Ilargi Perez Oronoz**	**Etxauri (EH)**
97.	Paula Pevida Arbesu	Noreña (ESP)
98.	Elisa Presa	Verona (IT)
99.	Liv Richter Melby	Nittedal (NOR)
100.	Laura Rius Morales	Sant Sadurni d'Anoia (HK)
101.	Carmen Rodriguez Alvarez	Ponferrada (ESP)
102.	**Sandra Rodrigez Arregi**	**Zarautz (EH)**
103.	Cristina San Emeterio	Santa Lucia de Tirajana (ESP)
104.	Maria San Roman	Jaca (ESP)
105.	**Ainhoa Sanz Rodrigez**	**Urretxu (EH)**
106.	Annie Truong	London (EB)
107.	**Sarah Ugarte Miranda**	**Tolosa (EH)**
108.	**Ainara Uribarri Martinez**	**Oñati (EH)**
109.	**Itsasne Urkiaga Mugarra**	**Amorebieta-Etxano (EH)**
110.	**Irune Velez d Mendizabal**	**Gasteiz (EH)**
111.	Coral Velilla Guerrero	Madrid (ESP)
112.	Sandra Yagüe Sabido	Campisabalos (ESP)
113.	Raul Butaci	Tornabous (HK)
114.	Bogdan Damian	Brasov (ERR)
115.	Marc Bernades Olle	Igualada (HK)
116.	Yoel De Paz Baeza	Villa de mazo (ESP)
117.	Raoul Raus	Montesquieu des Albères (FR)
118.	Fabian Venero Jimenez	Manzanares El Real ESP)
119.	Tibere Debizet	Grenoble (FR)
120.	Adrien Briffod	Vevey (SUI)
121.	Loic Robert	Oloron Sainte Marie (FR)
122.	Juho Ylinen	Jyväskylä (FIN)
123.	**Aitor Agirretxe Otaño**	**Bidania-Goiatz ((EH)**
124.	**Iker Agirreurreta**	**Arrasate (EH)**
125.	**Sergio Agirregomezkorta**	**Elgoibar (EH)**
126.	Jordi Agusti Casanovas	Sant Sadurni d'Anoia (HK)
127.	Zaid Ait Malek Oulkis	Miravet (HK)
128.	**Hassan Aitchaou**	**Villabona (EH)**
129.	**Aitor Aizkorbe Jimenez**	**Goizueta (EH)**
130.	**Aitor Ajuria**	**Otxandio (EH)**
131.	**Eñaut Alberdi Laskurain**	**Zegama (EH)**
132.	**Urtzi Albizu**	**Basauri (EH)**
133.	**Xabi Aldanondo Aizpuru**	**Gabiria (EH)**
134.	**Ander Alday Valverde**	**Gasteiz (EH)**
135.	**Jesus Mari Alegria Mauleon**	**Arroniz (EH)**
136.	Raul Aleman Lopez	Madrid (ESP)
137.	Pakito Alonso Alvarez	Covaleda (ESP)
138.	**Aaron Alonso Cesteros**	**Sopela (EH)**
139.	Andres Alonso Santos	Tres Cantos (ESP)
140.	**Aitor Altuna Yarza**	**Tolosa (EH)**
141.	**Josu Alustiza Navarro**	**Usurbil (EH)**
142.	Jesus alvarez Morales	Olvan (HK)
143.	**Julio Alvarez-Buylla de la Uz**	**Baiona (EH)**
144.	Victor Amaral	Cinfães (POR)
145.	**Endika Amezaga Etxebarria**	**Berango (EH)**
146.	**Ander Amonarriz Zubiondo**	**Hernani (EH)**
147.	**Ion Andreu Viguera**	**Azkoitia (EH)**
148.	**Iñaki Añorga Unanue**	**Donostia (EH)**
149.	**Iñigo Apalategi**	**Donostia (EH)**
150.	**Jon Ander Aranburu Zabalo**	**Zumarraga (EH)**
151.	**Inigo Arantzamendi Alkorta**	**Ondarroa (EH)**
152.	Carlos Arauzo Martin	Tiana (HK)
153.	**Pablo Arejolaleiba**	**Oñati (EH)**
154.	Antonio Argiles Andres	Utiel (HK)
155.	Bruno Argüelles Diaz	Pola de Siero (ESP)
156.	**Urko Arizeta Legarra**	**Asteasu (EH)**
157.	**Gorka Arizkorreta Lasa**	**Zegama (EH)**
158.	Fernando Ezequiel Arnedo	Tamaimo (ESP)
159.	**Unax Arregi Ballestero**	**Oñati (EH)**
160.	Jaime Arribas Sampedro	Arties (HK)
161.	**Iñaki Arribillaga Beretxinaga**	**Elgoibar (EH)**
162.	**Lander Arriola Iñurrategi**	**Orio (EH)**
163.	Diego Arroyo Mazorra	Santa Cristina d'Aro (HK)
164.	**Ander Arruti Perez**	**Azpeitia (EH)**
165.	**Anartz Artola Arin**	**Hernani (EH)**
166.	**Axier Artola Ormazabal**	**Amezketa (EH)**
167.	Shahid Ashraf	Bartzelona (HK)
168.	**Iñigo Atxa Elorza**	**Zegama (EH)**
169.	**Mikel Auzmendi Aierbe**	**Ataun (EH)**
170.	Carlos Avila Gonzalez	Bartzelona (HK)
171.	**Javi Azkoiti**	**Otsagabia (EH)**
172.	**Asier Azkarate**	**Arrasate (EH)**
173.	**Lander Azkorra**	**Sopela (EH)**
174.	**Mikel Azurmendi Irurtzun**	**Segura (EH)**
175.	**Xabi Azurmendi Telleria**	**Zegama (EH)**
176.	**Juan Luis Badiola Palacios**	**Bilbao (EH)**
177.	Jesus Bailo Berdor	Biota (ESP)
178.	**Julen Balerdi aranburu**	**Idiazabal (EH)**
179.	Jan Ballbe Peres	Sort (HK)
180.	**Unai Baños Garcia**	**Bilbo (EH)**
181.	**Zorion Barandiaran Larrea**	**Zegama (EH)**
182.	**Xabi Barandiaran Mujika**	**Zegama (EH)**
183.	Francisco Javier Barea Pastor	Teruel (ESP)
184.	**Gorka Barreros Soria**	**Urretxu (EH)**
185.	Clement Barret	Pin (FR)
186.	Oscar Basantes	Quito (ECU)
187.	**Iban Bengoetxea Cousillas**	**Leitza (EH)**
188.	**Jon Berasarte Urroz**	**Irun (EH)**
189.	Ivan Bernardo Perez	El Barco de avila (ESP)
190.	Alejo Bbernat Gil	Vila-Real (HK)
191.	Pau Bestard Puig	Esporles (HK)
192.	Toni Biedma Alcaide	Benifaio (HK)
193.	**Manu Blanco**	**Urretxu (EH)**
194.	David Blanco Hernandez	Alcazar de San Juan (ESP)
195.	Guillem Bogunya Salvans	Sant Sadurni d'Anoia (HK)
196.	**Alejandro Borges**	**Legazpi (EH)**
197.	Jordi Bricolle Sancho	Sant Sadurni d'Anoia (HK)
198.	Manu Broto Salgueiro	Casarilh (HK)
199.	Daniel Bueno	Bartzelona (HK)
200.	**Iker Bueno Barace**	**Zizur (EH)**
201.	Israel Bueno Ramos	Pajara (ESP)
202.	**Javier Burgi Bengoa**	Iruñea (EH)
203.	Marco Buttazzoni	Malborghetto Valbruna (ITA)
204.	Avelino Caamaño Nieto	Noia (ESP)
205.	Ruben Cabo	Oviedo (ESP)
206.	Unai Calahorra Romillo	Torrelaguna (ESP)
207.	Pedro Calisto	Santiago Maior (POR)
208.	Xavier Calonge Barrio	Tona (HK)
209.	Albert Camarasa sansa	Alcoletge (HK)
210.	**Gaizka Camino Villalain**	**Bilbo (EH)**
211.	Joan Campins Mayol	Manacor (HK)
212.	Roger Canals Marles	Sabt Sadurni d'Anoia (HK)
213.	Albert Cañas Gonzalez	Altafulla (HK)
214.	Jorge Canterla Fernandez	Aracena (ESP)
215.	Iker Carayol Perez	Sant Sadurni d'Anoia (HK)
216.	Marc Carbo Feliu	Orpesa (HK)
217.	**Oscar Cardelle Montero**	**Bilbo (EH)**
218.	Ricardo Carmo	Arouca (POR)
219.	Ignasi Casals Miro	Prades (HK)
220.	Nicolas Casas Mendez	Escaldes (HK)
221.	Arnau Cases de Matias	La Guingueta d'Àneu (HK)
222.	Juan Castillo	Bartzelona (HK)
223.	Daniel Castillo Fernandez	Castellar del Valles (HK)
224.	David Cau Saurina	Es Bordes (HK)
225.	Deibi Chalana Teiga	Bembibre (ESP)
226.	Carlos Cipres Castillo	Boltaña (ESP)
227.	Daniel Ciruelos Muñoz	Fuenlabrada (ESP)
228.	Juan Pedro Cita Camacho	Talavera de la Reina (ESP)
229.	Jordi Clopes Carbo	Cabrera de Mar (HK)
230.	Jordi Comellas Puig	Avià (HK)
231.	Jordi Corbera Gimeno	Bartzelona HK)
232.	Jordi Cornelio Costa	Berga (HK)
233.	**Aitzol Cortijo Idoyaga**	**Gernika-Lumo (EH)**
234.	Marc Costa Puigpelat	Girona (HK)
235.	Gerard Costa Señe	Vic (HK)
236.	Luis Couto Arnaiz	Naron (ESP)
237.	Raul Criado Sanchez	Castiello de Jaca (ESP)
238.	Sergio Cubillas Corrales	Leon (ESP)
239.	Jose Davia Cantos	Montealegre del Castillo (ESP)
240.	**Oliver de Castro Sanz**	**Zegama (EH)**
241.	**Joseba De la Hera**	**Zegama (EH)**
242.	**Sergio De Oliveira Gomes**	**Astigarraga (EH)**
243.	Oscar del Olmo	Valladolid (ESP)
244.	Isidro Del Olmo	Burriana (HK)
245.	Miguel Delgado Pastrana	Archidona (ESP)
246.	Diego Diaz pando	Lebeña (ESP)
247.	**Ander Diego Lopez**	**Artziniega (EH)**
248.	**Martin Diez Virto**	**Segura (EH)**
249.	Adria Dios Meda	Corbera de Llobregat (HK)
250.	Carlos Dominguez Barroso	Navamorcuende (ESP)
251.	Maximilien Drion du Chapois	Lasne (BEL)
252.	Isaac Duarte Martinez	Matadepera (HK)
253.	**Jon Durana Basoa**	**Orduña (EH)**
254.	**Unai Eguren Retolaza**	**Zerain (EH)**
255.	**Iosu Elola Azurmendi**	**Bidania-Goiatz (EH)**
256.	**Eaitz Elorriaga Anduaga**	**Abetxuko (EH)**
257.	**Oier Elorza Abaunz**	**Azkoitia (EH)**
258.	**Joxe Mari Errastl Arruti**	**Orio (EH)**
259.	**Oier Escudero Mendizabal**	**Andoain (EH)**
260.	Pedro Escudero Valencia	Campillos (ESP)
261.	Sergio Espiga Gomez	Burgos (ESP)
262.	**Aimar Esteban Ibarbia**	**Zizurkil (EH)**
263.	**Josu Etxeberria Garcia**	**Zerain (EH)**
264.	**Julen Etxeberria Madrid**	**Irun (EH)**
265.	**Ioritz Etxeberria Oiarbide**	**Zegama (EH)**
266.	**Mikel Etxezarreta Lasa**	**Olaberria (EH)**
267.	**Unai Ezeiza Jauregi**	**Urnieta (EH)**
268.	Jaime Faulo Martin	Bartzelona
269.	**Julen Fernandez Arin**	**Hondarribia (EH)**
270.	**Jaime Fernandez Iruretagoien**	
271.	Diego Fernandez Layos Gallego	
272.	**Jordi Fernandez Llurdes**	
273.	Eloi Ferri Segui	
274.	Carlos Flores Sanz	
275.	**Jose angel Florez Moreno**	
276.	Manolo Fontana Fenollar	
277.	Carlos Frias Rivera	
278.	**Ander Gaminde Diego**	
279.	**Aritz Garai Murua**	
280.	**Oier Garaiburu Zubillaga**	
281.	**Iñigo Garaioa Los Santos**	
282.	Andres Garcia blanco	
283.	Ramon Garcia Fernandez	
284.	David Garcia Juan	
285.	**Jordi Garcia lomba**	
286.	Andres Garcia Lopez	
287.	Juan Manuel Garcia Martinez	
288.	Jaime Garcia Puente	
289.	Joel Garcia Viñas	
290.	**Aitor Garmendia Etxeberria**	
291.	**Gorka Gaviña Basterra**	
292.	**Ander Gerrikaetxebarria**	
293.	Jesus Gil Garcia	
294.	David Gil Salinas	
295.	**Mikel Goikoetxea Guridi**	
296.	**Igor Goikolea Larrauri**	
297.	**Paul Goitisolo Otazua**	
298.	**Andoni Gomez Gutierrez**	
299.	Juan Angel Gomez Maiz	
300.	Pedro Jose Gomez Rodriguez	
301.	**Mikel Goñi Beltran de Otalora**	
302.	Jorge Gonzalez Allende	
303.	Juan Carlos Gonzalez Gandara	
304.	**Xabier Gonzalez Goti**	
305.	**Unai Gonzalez jimenez**	
306.	Roger Gou Greoles	
307.	**Julen Guerra Amundarain**	

LONTXO ARRANDEGIA
Martina Maiz, 3 • 20200 • Beasain
678 79 76 04
Jaso itzazu gure eskaintzak Whatsapp-ez
Ordutegia
Asteartetik larunbatera: 08:30 - 13:30
Egindako eskaerak 15:00ak arte jasotzeko aukera
Etxez etxeko banaketa eguerdi eta arratsaldean
lontxo2021@gmail.com

zabale — belardenda
Santa Maria, 8 - ORDIZIA
www.zabale.eus
Gure zerbitzuak
- Akupuntura
- Pisua kontrolatzea; argi interakzioaren ebaluazioa
- Haurrentzako elikagaiak
- Sendabelarrak
- Elikagai biologikoak, glutenik gabeko elikagaiak eta kosmetika naturala
- Kirolarientzako produktuak

AUZOKI
KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOAK SL
Kot. Zenb. 599
Araba kalea, 1
ORDIZIA
auzoki@auzoki.eus
Tel.: 943 087 486
688 651 379

mendi
kalari
an

n. IÑAKI GURRUTXAGA

a	**Iruñea (EH)**
o	Consuegra (ESP)
	Lekeitio (EH)
	La Pobla del Duc (HK)
	Huesca (ESP)
	Gasteiz (EH)
	Oliva (HK)
	Soria (ESP)
	Leioa (EH)
	Oñati (EH)
	Berastegi (EH)
	Lekunberri (EH)
	Noreña (ESP)
	Zaragoza (ESP)
	Ibi(HK)
	Donostia (EH)
	Madrid (ESP)
	La Vall D'Uixo (HK)
	Leon (ESP)
	La Senia (HK)
	Itsasondo (EH)
	Gazteiz (EH)
	Zornotza (EH)
	Carrion de Calatrava (ESP)
	Begues (HK)
	Mutriku (EH)
	Gasteiz (EH)
	Gernika-Lumo (EH)
	Bergara (EH)
	Castro Urdiales (ESP)
	Parla (ESP)
	Araia (EH)
	Mieres (ESP)
	Llinars del Vallès (HK)
	Dima (EH)
	Altza (EH)
	Golmes (HK)
	Telleriarte (EH)

308.	Miquel Guijon Amengual	Palma (HK)
309.	**Aitzol Guridi Zubia**	**Oñati (EH)**
310.	Sergio Gutierrez Gutierrez	Reinosa (ESP)
311.	Enrique Guzman Lorenzo	Las Palmas Gran Canaria (ESP)
312.	**Joxerra Hernandez Gil**	**Hernani (EH)**
313.	**Cristobal Hernandez Gil**	**Goizueta (EH)**
314.	Javier Hernandez	Algeciras (ESP)
315.	R. J. Herrera Rodriguez	Fondeguilla (HK)
316.	Moises Hervas Monfort	Picassent (HK)
317.	Rodrigo Ibañez Garcia	Colmenar Viejo (ESP)
318.	**Asier Idoiaga**	**Ondarroa (EH)**
319.	Xavier Illescas Bosch	Sabadell (HK)
320.	**Ander Iñarra Olaziregi**	**Lezo (EH)**
321.	**Imanol Inza Gisasola**	**Gabiria (EH)**
322.	**Imanol Iribar Anton**	**Getaria (EH)**
323.	**Iñaki Isasi Flores**	**Arespalditza (EH)**
324.	**Ibai Isasi Sistiaga**	**Gatika (EH)**
325.	**Ander Iturralde Oñatibia**	**Zarautz (EH)**
326.	**Asier Iturriagaetxebarria**	**Elorrio (EH)**
327.	**Eneko Iturrioz Zugasti**	**Zarautz (EH)**
328.	Adrian Ivars Ivars	Benissa (HK)
329.	Daniel Izquierdo Alonso	Agreda (ESP)
330.	**Endika Jauregi Etxegarai**	**Hondarribia (EH)**
331.	Rob Jebb	Kendal (EB)
332.	Urs Jenzer	Frutigen (SUI)
333.	Marc Jimenez Endrino	Bartzelona (HK)
334.	Juan Manuel Jimenez	Malaga (ESP)
335.	Juan Maria Jimenez Llorens	Naquera (HK)
336.	Javier Jimenez Zaldivar	Zaragoza (ESP)
337.	Christian Jove Garcia	Sabadell (HK)
338.	Francisco Juan Nicolas	Valencia (HK)
339.	**Pablo Juaristi San Jose**	**Donostia (EH)**
340.	**Imanol Kañamares**	**Berriozar (EH)**
341.	Anders Kjærevik	Øvre Ervik (NOR)
342.	**U. Kortabarria Berasategi**	**Antzuola (EH)**
343.	**Asier Labairu**	**Burlata (EH)**
344.	**Javi Laburu Montalban**	**Luiaondo (EH)**
345.	Romain Lacaste	Pau (FR)
346.	**Mikel Lakunza Elizaran**	**Tolosa (EH)**
347.	**Jose A. Larrarte Alkorta**	**Irura (EH)**
348.	**Asier Larruzea Fernandez**	**Güeñes (EH)**
349.	**Xabier Lasaga Telletxea**	**Lezo (EH)**
350.	**Mikel Legarreta Astiasaran**	**Urnieta (EH)**
351.	**Iraitz Legorburu Isasti**	**Getaria (EH)**
352.	**Xabier Legorburu Perez**	**Irun (EH)**
353.	**Ekaitz Lejarzegi Urizar**	**Ajangiz (EH)**
354.	Jose Leno	Cercs (HK)
355.	Jorge Leon Benitez	Sant Antoni de Portmany (HK)
356.	**Xabier Lete Biain**	**Oñati (EH)**
357.	Miguel Liaño Liendo	Samano (ESP)
358.	**Asier Lizarralde Makatzaga**	**Orio (EH)**
359.	**Aitor Lizaso Revilla**	**Astigarraga (EH)**
360.	Juan Bosco Llona Vivanco	Palma de Mallorca (HK)
361.	Pepe Llopes Zanon	Torrent (HK)
362.	**Pablo Lombraña Alcalde**	**Gasteiz (EH)**
363.	**Juan Jose Lopez Castro**	**Olaberria (EH)**
364.	Angel Lopez Galera	Bartzelona (HK)
365.	Carlos Lopez Garcia	Onda (HK)
366.	Jose luis Lopez Garrido	Onda (HK)
367.	Adrian Lopez Hazas	Ajofrin (ESP)
368.	Agustin Lopez Mancha	Benissa (HK)
369.	Aythami Lopez Villaverde	Frontera (ESP)
370.	Juan Lopez-Tello Herrero	Madrid (ESP)
371.	Miguel Angel Lozano Sola	Girona (HK)
372.	Fernando Lozano Tirado	Calella (HK)
373.	Richard Lugrin	Cardedeu (HK)
374.	Sito Luis Salas	Selva (HK)
375.	**Hodei Lujanbio Apezetxea**	**Goizueta (EH)**
376.	**A. Luna Merquelanz**	**Irun (EH)**

377.	**J.M. Machin Fernandez**	**Gasteiz (EH)**
378.	**Iñigo Macias Cipriain**	**Iruñea (EH)**
379.	**Ibai Madina Aizkorbe**	**Berrobi (EH)**
380.	**Xabat Maiotz Telleria**	**Segura (EH)**
381.	**Jon Maiztegi Pagaldai**	**Idiazabal (EH)**
382.	**Jon Maiztegi Etxaniz**	**Bergara (EH)**
383.	**Ibai Makazaga Aristi**	**Orio (EH)**
384.	**Igon Mancisidor Arruti**	**Zumaia (EH)**
385.	Joan Manero Bel	Santa Barbara (HK)
386.	Ignacio Mañez Paya	Petrer (HK)
387.	Guillem Mar Sebastia	Horta de Sant Joan (HK)
388.	Miguel angel Marin Aparicio	Enguera (HK)
389.	Juan Jose Martin de Cabo	Madrid (ESP)
390.	Jordi Martinez Mazcuñan	Sant Pere de Riudebitlles (HK)
391.	**Andres Martinez Polo**	**Irun (EH)**
392.	J. J. Masgrau Maireles	Sant Sadurni D´Anoia (HK)
393.	Toni Mataro Pascual	L'Escala (HK)
394.	Ivan Mateu Pacheco	Las Bayas (HK)
395.	**Axier Mauleon Iturralde**	Arroniz (EH)
396.	Alejandro Mayor Guzman	Galdar (ESP)
397.	Pau Mazcuñan Garcia	Rajadell (HK)
398.	**D. Mediavilla Rodriguez**	**Beasain (EH)**
399.	**Gorka Melgosa Ecenarro**	**Elgoibar (EH)**
400.	**Iñigo Mendiluze Elizalde**	**Donostia (EH)**
401.	**Eneko Mendizabal**	**Idiazabal (EH)**
402.	Victor Mier Torras	Nueva de Llanes (ESP)
403.	**Ibai Milikua Etxebarria**	**Areatza (EH)**
404.	J.M. Mingo San Ildefonso	Jerez de la Frontera (ESP)
405.	Mario Mirabel Alviz	Torrejoncillo (ESP)
406.	Rafa Miranda	Vizela (POR)
407.	Josep Miret Tomas	La Seu d'Urgell (HK)
408.	**B. Mitxelena Sagastibeltza**	**Bera (EH)**
409.	Jesus Molina Lopez	Molina de Segura (ESP)
410.	Sergio Monserrate Amela	Zaragoza (ESP)
411.	Jordi Moragues Nadal	Soller (HK)
412.	Jorge Morales Caro	Archidona (ESP)
413.	Emilio Morcillo Garcia	Albacete (ESP)
414.	**Gonzalo Moreno Clavo**	**Astigarraga (EH)**
415.	Ivan Moreno Magan	Guadalajara (ESP)
416.	**Asier Mujika**	**Idiazabal (EH)**
417.	**Aitor Mujika Alkaiaga**	**Lazkao (EH)**
418.	**Anartz Mujika Berasaluze**	**Beasain (EH)**
419.	**Aitor Mujika Calvillo**	**Beasain (EH)**
420.	Jordi Munne	Carme (HK)
421.	**Gontzal Murgoitio Esparza**	**Elorrio (EH)**
422.	**Borja Murillo Iriarte**	**Zarautz (EH)**
423.	**Iker Muzas Colera**	**Donostia (EH)**
424.	Serapio Nacar Arroyo	S. Lcia de Tirajana (ESP)
425.	**A. Nafarrete Usandizaga**	**Arrasate (EH)**
426.	Joaquin Narvaez	San Fernando (ARG)
427.	**Iñaki Odriozola Elizburu**	**Azpeitia (EH)**
428.	**Pello Olaberria**	**Mutiloa (EH)**
429.	**Mikel Olaizola Borda**	**Azpeitia (EH)**
430.	**Julen Olaizola izagirre**	**Ermua (EH)**
431.	**Iñaki Olano Orbegozo**	**Altzo (EH)**
432.	Jesus Oliva Canals	Vallmanya de Pinos (HK)
433.	Jesus Oliver Saez	Madrid (ESP)
434.	**Xabier Orduna Garjon**	**Uztarroze (EH)**
435.	**Paul Ormaetxea Bilbao**	**Murueta (EH)**
436.	**B. Ormaetxea Zenikazelaia**	**Amorebieta (EH)**
437.	Raul Ortiz Cabello	Villanueva del Rosario (ESP)
438.	Francisco Osanz Lafita	Zaragoza (ESP)
439.	**Ruben Otero**	**Abadiño (EH)**
440.	**Toño Otero Rey**	**Zegama (EH)**
441.	**Ander Oiarbide Zubeldia**	**Segura (EH)**
442.	H.A. Pacheco de Faria	Oeiras (POR)
443.	Federico Pacheco Rojas	La Union (CR)
444.	**Brayan Padilla Glez**	**Mezkiritz (EH)**
445.	Xevi Pages Coromina	Olot (HK)

446.	Joaquim Palles Darne	Torroella Montgri (HK)
447.	Javier Pardo Calero	Illescas (ESP)
448.	**Unai Paredes Aldasoro**	**Segura (EH)**
449.	Sergio Parra Fernandez	Ripollet (HK)
450.	Marcos Pascual Martin	Madrid (ESP)
451.	**Aitor Pascual Reca**	**Pasaia (EH)**
452.	Vicente Pastor Contador	Zaragoza (ESP)
453.	Ezequiel Alexis Pauluzak	Castelar (ESP)
454.	Daniel Paz Pardo	Ames (GAL)
455.	**J.M. Pellus Rodriguez**	**Beasain (EH)**
456.	**Igor Peña Etxebarria**	**Barakaldo (EH)**
457.	Ivan Peña Montes	Igualada (HK)
458.	**Iker Peña Sanchez**	**Irun (EH)**
459.	Toni Peñaranda Armero	Bellver de Cerdanya (HK)
460.	Victor Perales Maisanava	Zaragoza (ESP)
461.	Dimas Pereira Obaya	Xixon (ESP)
462.	Dani Perez Fernandez	Xixon (ESP)
463.	Samuel Perez Hernandez	Zamora (ESP)
464.	Juan Francisco Perez Lopez	Madrid (ESP)
465.	Ubaldo Perez Martin	Pavias (HK)
466.	Mario Perez Pereira	Madrid (ESP)
467.	Xabier Pilar Diaz	Bartzelona (HK)
468.	David Pimentel Dias	Mataro (HK)
469.	Ivan Pimentel Giraldez	Oia (GAL)
470.	Albert Pinell Hernandez	Bartzelona (HK)
471.	**Guillermo Pinillos**	**Zegama (EH)**
472.	Mario Poletti	Fiorano al Serio (ITA)
473.	Ruben Ponce Alberola	Albacete (ESP)
474.	J.J. Ponce de Leon	Santa Cruz de La Palma (ESP)
475.	**Ibai Primicia Velasco**	**Antsoain (EH)**
476.	Paolo Profili	Falconara Marittima (ITA)
477.	**Iker Puga**	**Pasaia (EH)**
478.	Miguel Angel Pulido Garcia	Toledo (ESP)
